

Prest!



BERBETAN: **URDAX ANTEPARA ARREGI** ZIERBANA ARRAUN TALDEKO ARRAUNLARIA

ERREPORTAJEA: **EUSKARABENTURA** BARKUA: **ASTE NAGUSIKO KONPARTSAKIDE DESBERDINEN BIZIPENAK**

5-246-247-248-249



Sustatzailea





Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu
Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Jon Zubieta - Itsaso Larramendi Elexgaray		Iritzia	4
	Julie Taber		Gurera etorriak	5
e	erreportajea Euskal Herria euskararen eskutik hobeto ezagutzeko aukera <i>Joan den uztailaren 1etik 31ra bitarte, Euskarabenturaren bosgarren edizioa ospatu zen. Esperientzia honi esker, 125 euskal gaztek Euskal Herria zeharkatu zuten, barremanetan jartzeko euskara ardatz zutelarik.</i>			6
	Udalekuetako abenturei jarraiki		Udalekuak	10
	Victor Patricio Landaluze (1830-1889), Kubako lehen margolari kostunbrista		Behin batean	12
	Duintasuna helburu		Artikulua	14
b	berbetan URDAX ANTEPARA ARREGIrekin <i>Zierbana Arraun Taldeko arraunlaria da Urdax Antepara. Deustun hazi eta hezitakoa, Tomateraren koloreak defendatzen hasi zen arraunean. Joan den urtean galipoekin Eusko Label mailara salto egin eta gero, aurten, Ligan eta Kontxako estropadan lortutako bigarren postuarekin goia jo du bere kirol ibilbidean.</i>			16
	Salbeko zubia (1972)		Irudiak berbetan	21
HEZKUNTZA	Eskola, euskararen jagole			 barkua bete herba
JAIK	Aste Nagusiko konpartsakide desberdinen bizipenak			
NUTRIZIOA	Proteinak: zer dira? Non daude? Zertarako dira beharrezkoak?			
KULTUR TXOTX	Patri Muñoz eta Salvador Anakabe Solabarrieta			

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Axular Arostegi eta Asier Cobos

Eredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrea, Nerea Cubillo

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inaziko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inaziko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu


Diseinua: B05T

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01



Jon Zubietta
Sanitarra

“This is (y)our place”

Aurreko egunean auzoan ireki berri duten taberna batean hurrengo esaldia ikusi nuen ingelesez idatzita: “Turista agurgarria, etxean bezala sentitu nahi bazara, hauxe da zure lekua”.

Bitxia iruditu zitzaidan nola guk gero eta arrotzagoak sentitzen ditugun auzo propioetan, kanpotik etorritako turistek euren lekua topatu ahal izatea. Izan ere, gure hiri txikia metropoli handien parean egon dadin martxan jarri diren makro-proiektuak eta auzoen eraldaketa sakonak, gure auzoetan bete-betean ikusi ditugunak eta trukean eremu naturalen suntsipena, espekulazioa eta inposatutako obrak

utzi dizkigutenak, paradigma berri bat ekartzen ari dira gure kaleetara. Gure auzoak gero eta gehiago ari dira bihurtzen turistentzako atrakzio eta gero eta gutxiago guretzako bizileku.

Zentzu horretan, aldaketak aldaketa, ezin dugu ahaztu gure auzoak guretzako hazteko, gure artean harremanak egiteko, ondo pasatzeko eta, finean, bizitzeko lekuak izan behar direla, eta inolaz ere ez turistak gustura egon ahal izateko aurretik diseinatutako eta eraikitako produktuak. Datorrena datorrela, ez ditzagun gure auzoak erakuslehiu hutsak bihurtzen utzi.



Itsaso Larramendi Elexgaray
Hiriaz eta beste

Alferrikakoaren balioa



Irratia entzun ohi dut sukaldean nagoenean, eta aurrekoan, Nuccio Ordineren “Alferrikakoaren balioa” manifestuaren inguruko elkarrizketa bat harrapatu nuen erdi hasita. Liburu euskaraz argitaratu zuen Pamielak ekainean, eta horren harira, erabilpen zehatzik ez duten horien garrantziaz ibili ziren berbetan elkarrizketatzailea eta testuaren itzultzailea. Helburu konkreturik gabe egiten ditugun ekintzez, etekinik lortzeko balio ez duten jakintzez, erabilera produktiborik ez duten objektuez.

Eta zein lasaigarria den pentsatzea badaudela ezertarako balio ez diguten gauzak, nora garamatzaten zehazki jakin gabe ere,

plazer hutsagatik egiten ditugunak. Esango nuke halakoen faltan gaudela sarri, eta inertzia produktibestez eta merkatuaren logikez blaitutako testuinguruan bizi garen heinean, “denbora galtze” bezala ulertzen diren jardueretan aritzea badela erresistentzia modu bat. Aldaketak eragiteko palanka indartsu bat, kolektiboan arituta bere potentziala biderkatzeko gai dena.

Irakur ditzagun nobelak, apain dezagun etxea lorez, egin dezagun siesta, edo munta ditzagun puzzleak. Dantza gaitzean nekatu arte, entzun ditzagun familiako zaharrenen istorioak, fotokopia ditzagun fanzineak, edo egin ditzagun hemen kabitzen ez diren beste hamaika alferrikako subertsio.



Julie Taber

Jatorria: Houston

Bizitokia: Bilbo

Lanbidea: ingeleseko irakaslea



Nola eta noiz iritsi zinen Euskal Herrira?

Ba, historia luzea da. Gutxi gorabehera, 2012an Santanderren egin nuen erasmus programa batean bisitatu nuenetik argi nuen berriz ere etorri nahi nuela Bilbora. Hala, 2020an Irlandan master bat amaitu ostean, lanpostu bat aurkitu nuen hemendik gertu.

Zerk harritu zintuen gehien iritsi zinenean?

2012an Bilbo bisitatu nuen lehen aldian, euskararen presentziak asko harritu ninduen; izan ere, AEBn, zoritxarrez, ez dago Euskal Herriaren eta haren hizkuntzaren kontzientzia handirik. Horregatik, hasiera batean oso hizkuntza arrotza iruditzen zitzaidan Europako beste hizkuntza hurbil guztiekin alderatuta, ia zerbait estralurtarra bezala. Jakin-min handia sortu zidan.

Orduan, zerbait ezagutzen zenuen zonaldeaz edo gure kulturaz etorri aurretik?

Bai, lehenengo aldiz bisitatu nuen aldi hartan Guggenheimek zeharo liluratu ninduen. Momentu horretan, Egon Schiefleren erakusketa bat zegoen, nire margolari gogokoenetako bat, eta neure buruari esan nion:

Ados, hiri honek bizitza eta kultura asko du.

Zeintzuk dira somatu AEBen eta Euskal Herriaren artean somatu dituzun antzekotasun eta desberdintasunak?

Bi guneek ez dute ezer amankomunean, mendebaldeko munduaren oinarriko alderdiez gain. Kulturalki, askoz gusturago sentitzen naiz hemen, jendea lasaiago ikusten baita, bizikaltate hobearrekin.

Nolakoa izan da euskal gizartearen integratzeko prozesua?

Ez da espero nuen bezain zaila izan, nahiz eta jendeak beti nabaritu nauen atzerritarra naitzela. Horrek alderdi positiboa izan dezake, baina isolamenduaren aldea ere badu. Alabaina, beste herrialde batzuetako jende askoren gaitzespena eta gorrotoa eragiten duen herrialde batean hazi nintzen. Hala ere, euskaldunek nahiko onartua sentitzen naiz.

Zein da edo izan da zure harremana euskararekin?

Euskaratik gutxi ezagutzen dut, benetan. Oso hizkuntza zaila iruditzen zait ikasteko, hemen hazi ez bazara. Ikaragarria da bere historiari buruz dakidagatik, batez ere latinaren

aurkako erresistentzia eta askoz aurrerago frankismoaren aurkakoa.

Zer duzu faltan?

Janaria, argi eta garbi. Jende askok galdetzen dit ea zertan datzan zehazki janari estatubatuarra. Baina ez dut, zehazki, hori faltan botatzen (hanburgesak, adibidez), baizik eta Houstonen dagoen benetako janari asiarra, batez ere vietnaita eta thailandiarra. Aniztasun handiko hiria da, eta, horregatik, mundu osoko benetako janaria dago han. Baita benetako janari mexikarra ere, han askoz merkeagoa baita. Gainera, hemen, oro har, Texasen baino askoz ohitura gutxiago dago janari mina jateko.

Zer aholku emango zenioke zure herrialdeko norbaiti, zuk emandako pauso bera ematea pentsatzen ari balitz?

Gaztelaniaz maila ona izatea gomendatuko nioke; oso argi izan beharko luke hemen ez dagoela jende asko egunerokotasunean ingelesez hitz egiteko gai denik. Noski, posible da hemen gaztelaniaren maila egokia izan gabe bizitzea, baina ez zara gai izango hemengo kultura benetan bizitzeko, ezta hemengo jendearekin asko integratzeko ere.



Añianatik Argantzunera bidean.

EUSKAL HERRIA EUSKARAREN ESKUTIK HOBETO EZAGUTZEKO AUKERA

Joan den uztailaren 1etik 31ra bitarte, Euskarabenturaren bosgarren edizioa ospatu zen. Esperientzia honi esker, 125 euskal gaztek Euskal Herria zeharkatu zuten, harremanetan jartzeko euskara ardatz zutelarik.

Testua: Axular Arostegi Gurrutxaga

Argazkiak: Euskarabentura

Umezaroan eta gaztaroan udalekuak beti izan dira udara garaiko aisialdirako ekintza aproposa. Hala, klaseko eta etxeko egunerokotasunetik aldentzen garen bitartean, bizpahiru astez jende eta leku berriak ezagutzeko aukera ezin hobea dugu. Izan ere, Deustualdean baditugu aspaldidanik gisa horretako ekimenen antolakuntzan diharduten taldeak: Txantxiku, Gazte Alai, Egunsentia edota Txepetx, esaterako.

Euskarabentura horietako bat ere bada. Bertan, 15-17 urte bitarteko 125 euskal gaztek Euskal Herria zeharkatzen dute, harremanetan jartzeko euskara erabiltzen dutelarik. Bosgarren edizioa izan da aurtengoa eta dagoeneko irekita dago 2024ko edizioan parte hartzeko aukera. Irune

de la Maza, Danel Abando eta Nikole Urrutibeaskoa dira aurtengo edizioaren partaideetako hiru. De la Maza koordinazio taldean aritu da, Danel Abando Bilbon hizlari eta Urrutibeaskoa uztailaren 1ean abiatu zen Mauletik eta 31n heldu zen Getxora. Orotara, 31 etapa egin zituen, 783 kilometro, 483 oinez, hain zuzen ere.

Kezka berbera abiapuntu

Proiektuaren atzean, Euskarabentura Elkar-tea dago, ekimenari izena eman dion irabazi asmorik gabeko elkarte euskaltzalea. Euskal Herriko txoko askotako hamar gaztek osatzen dute eta ia hiru urtez aritu ziren, boluntario gisa, egitasmoari forma ematen, harik eta 2018ko



uztailean lehenengoz argia ikusi zuen arte. Hala oroitzen du De la Mazak ekimenaren sorrera, “2015ean Boisen (AEBetan) antolatu zen euskal jaialdi batean, aurretik Ruta Quetzalean parte hartu zuten gazte batzuk batu ziren; hain zuzen, Hego Ameriketan egiten zen espedizioa”. Koordinazio taldeko kidearen berbetan, “esperientzia hori kontuan hartuta, konturatu ziren denak kezka berbera zutela. Alegia, euskara geroz eta gehiago ikasten da, baina gabezia ikusten zuten erabileran, eta honako ideia okurritu zitzaizen euskararen erabileran eragiteko asmoz: zergatik ez dugu espedizio bat egiten, hilabetekoa, Euskal Herri osoko zein diasporako 15-17 urte arteko gazteekin?”

2018an lehendabiziko edizioa antolatu bazuten ere, ezin izan dute urtero halakorik antolatzerik lortu. 2020an, adibidez, Covid garaia zela eta, ez zuten ediziorik antolatu. 2021ean, aldiz, 10 eguneko bi txanda egin behar izan zituzten. Dena den, salbuespen horiek kenduta, formatua hasieratik mantendu dute.

Helburuari dagokionez, hauxe dio: “Parte hartzen duten gazteei Euskal Herriko errealitateak erakutsi nahi dizkiegu. Azken batean, eurek ere ikus dezaten bakoitzak hizkuntzarekiko bizi duen errealitatea, zeintzuk diren dituen gabeziak, nola bizi duten egoera hori eta abar”.



Araiatik Zerainera bidean.

Hartu-eman aberasgarria

Uztaileko etapa horietako askotan, ekintza eta hitzaldiez gozatu ahal izan zuten gazteek. Horien artean, Bilbon antolatutakoan zehazki, Danel Abando deustuarrak parte hartu zuen. Abando, Prest-eko kolaboratzaile izateaz gain, irakaslea eta boxeolari ere izandako gaztea da. Horretaz aparte, euskara eta kirol hori uztartzen dituen “Ukabilketan” proiektua abiatu zuen 2021ean: “Twitter bidez bidali zidaten parte hartzeko gonbidapena. Egia esan, jadanik egitasmoa ezagutzen nuenez, segituen eman nien baietza”. Hitzaldia dela eta, gaia libre zela adierazi zioten. Nolanahi ere, deustuarraren diskurtsoa zein izango zen ondo zekiten, aipatu ziotenez, bere bideoetako bat ikusi zutelako: “Bazekiten euskararekin izan dudana esperientziarekin lotuko nuela, besteak beste: gaztelaniaz bizitzetik euskaraz egiteko eman nuen jauzia edota Ukabilketan proiektua bera”.

Abandok oroitzapen polita du berak parte hartu zuen jardunaldiaz. Hitzaldia ekimenaren azken egunetan antolatu izanaren ondorioz, gazteak nekatu xamar iritsi ziren arren, entzuleak zein hizlaria gustura geratu zirela uste du: “Galdera pilo bat egin zizkidaten. Pentsa, azkenean arduradunak azken hiru galderak egiteko eskatu behar izan zien, ekintza denbora aldetik larregi luzatu ez zedin”.

Esan bezala, ofizioz irakaslea da Danel. Horregatik, hezitzaile ikuspuntutik ere oso esperientzi baliagarritzat hartu zuen gazte horiekin izandako hartu-eman: “Gazteekin hitz egitea beti da oso aberasgarria. Azkenean, badirudi haiengana joan behar duzula errealitatea nolakoa den kontatzen eta ez da horrela. Haiek pertsonak dira, gu bezala, mundu honetan daude eta euren ikuspuntua dute. Pertsonalki, besterik gabe, saiatu



Donibonetik Irunberrira bidean.



nintzen erakusten posible dela, testuinguru erabat erdaldunean, eta familia ez oso euskaldun batean jaiota ere, jauzi hori ere ematea”.

Duda barik gomendatzeko esperientzia

Daniele Urrutibeaskoa 17 urteko BHI Botikazahar ikastetxeko ikasle deustuarra da. Bere osabari esker ezagutu zuen Euskarabentura eta, nahiz eta aurreneko saiakeran parte hartzerik ez lortu, aurten ez du aukera galdu: “Joan den urtean ezin izan nintzen apuntatu, eta, aurtengo edizioan soilik 2006 eta 2007ko urtekoek parte hartu zezaketenez, nire azken urtea zen apuntatu ahal izateko”.

Parte hartzera animatu zuten arrazoiei dagokienez, argi dauzka Urrutibeaskoak: “Pertsonalki, beti gustatu zait kirola, eta urtero joan izan naiz udalekuren batera. Horregatik, entzun nituen aukeren artean hau iruditu zitzaidan interesgarriena, Euskal Herri osoko jendea ezagutzeko aukera ematen zidalako eta antolatuko zituzten ekintzak erakargarriak ziruditen”.

Aurtengo edizioko parte-hartzaileak adierazi digunez, lagun ugari egiteko aukera ederra izan

da: “Lehenengo egunetik 12 pertsonako taldeetan bereizten zaituzte, elkar ezagutzeko. Hain zuzen, lehendabiziko egunetan hamaika jolas antolatzen dituzte aurreneko elkarrekin harremanetan jartzea errazagoa izan dadin. Uztailaren 31n Getxo bukatu ostean, hainbat aldiz geratu gara bertan ezagututako zenbait lagun”.

Sozialki ez ezik, aurretik ezagutzen ez zituen Euskal Herriko lurraldeak ezagutzeko ere esperientzia baliagarria izan da Urrutibeaskoarentzat. Era horretan, aurrez Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldea nahiko ondo ezagutzen zituen arren, ez zen hala Zuberoa eta Behe Nafarroaren kasuan. Horretaz gain, bereziki gustatu zaizkion herri batzuk bisitatu ahal izan ditu, Lesaka eta Donibane Garazi, kasu. Hurrengo edizioari begira, deustuarrak argi du bizitako esperientzia beste edozein gazteri gomendatuko liokeela: “Batez ere mendia, kirola eta euskal kultura gustatzen bazaizu aukera ezin hobea da. Hain zuzen ere, zure antzoko gustuak dituen jendearekin elkartuko zarelako, 31 eguneko ibilbideari esker, jende berri asko ezagutuko duzulako eta harreman politak egingo dituzulako. Ezingo nuke gehiago gomendatu, egia esan”.



**EUSKARAREN
INTERPRETazio
ZENTRO BERRIA
BILBON,**

ZATOZ!

www.euskararenetxea.eus


Euskararen Etxea

**EUSKARAREN
INTERPRETazio
ZENTROA**


Bizkaia
EUSKAL
HERRIKO
ERAKUNDA



UDALEKUETAKO ABENTUREI JARRAIKI

TXANTXIKU



Uda honetan ere, urtero bezala, Txantxikuko kideak udalekuetan joan gara. Uztailaren 10ean abiatu ginen Deustutik oihanean murgiltzeko gogoz. Hamar egun elkarrekin jolastu, abenturak bizi eta euskaraz gozatzeko irrikitan. Autobusa beteta heldu zen Itziarrrera, lehendabizi. Bi egun eman genituen bertan, hondartzan, aldapak gora eta behera, frontoian esterillean lotan hasieran, hiru pisuko literetan ondoren. Heldu ginen Loiolara, “pentsa gendun zela Santutegian...” abestuko genuen gero, baina ez, oihan-hostoz betetako paretak zituen aterpetxean geratzea suertatu zitzaigun. Loiolan azoka eguna ospatu ge-

nuen, Santiagora joan ginen eta txerrikeri egunean ederto zikindu genuen elkar. Kontatuko ez dugunik ere badago, hondartzan erre ginenekoa, argazkia atera bitartean hiru ume komunean, pota bat tarteka... Baina hau ez diogu inori esango, ezta? Badakigulako, izozkiek eta barreek dena osatzen dutela.

Inoizko gehien izan gara! Eta elkar zaintzeko, ikasteko, gozatzeko, dibertitzeko... aukera izan dugu berri ere. Goazen Txantxi, goazen! Biziko baikara euskaraz! Eta bizi izan gara, jolastu gara, gozatu dugu... hori delako hartu dugun hautua.

TXEPETX

Uda esperientzia berriz bete hasi genuen Txepetxok. Ikasturtea agurtu, Eki Egunean solstizioa ospatu genuen eta uztailaren 3an, motxila bete-beteta, Labrazarako bidea hartu genuen. Labraza Araba hegoaldeko herri txiki-txiki bat da, Oion udalerrian dagoena. Erdi Aroan sortu zen eta garai hartako harresiaren aztarnak ditu oraindik ere. Bertako herriarrek ezin hobeto hartu gintuzten, beste auzokide batzuk bezala. Gainera, asteburuan Erdi Aroko jaiak ospatu zuten, eta hor aritu ginen gu ere, ordu txikiak arte jaten eta dantzatzen. Guk ere Erdi Aroko giroan murgilduta eman genituen egun batzuk. Erdi Kiroletan aritu ginen, eta astebetetz gure gaztelua izan zen etxea armarridun bandera eta guzti jantzi genuen.

Aste osoa ez ginen iraganean iltzatuta egon, ordea. Uztaila amaieran ospatzen ditugun auzoko jaietarako berotzeko, Saniko jaiak antolatuta genituen egun

batean: txupinazoa, tortilla txapelketa, boloak, fregona jaurtiketa, kontzertuak... denetarik izan genuen! Gainera, bi egunez inguruko herrietako igerilekue-tara joateko aukera izan genuen, eta egun batean ur jolasak egin genituen, eta zikinkeria bat ere... Emozioz beteta hartu genuen berriz ere Levantera eraman gintuen autobusa, ia konturatu barik aste-bete igaro zenean. Orain ikasturtea hasteko irrikaz gaude!



EGUNSENTIA eta JAIOTZA



Aurten, Deustu eta Txurdinagako eskaut taldeek aliantza osatu eta batera joan gara Erretes Lantenera (Araba), gure udako 13 egunik handienak pasatzera. Guztira, 120 lagun izan gara. Hasieran, elkar ezagutzen ez genuen arren, elkarlan eredugarrian jardun genuen kanpamentua muntatzeko eta horri esker, hain zuzen, izoztaldia apurtu genuen. Inaugurazioan, landari ahalik eta etekinik handiena atera geniola ospatu genuen.

Bertan, kanpin-dendak lotu, jantokiak eta haraska bere lekuan jarri, dutxak ipini genituen, baita egurrezko egongela ere! Azpiegitura guztiak aguantatu zuten adarrok, adin mailaka banatuta, herririk herri, hala nola, Amurrio, Añes edota Urduña, zein mendirik mendi oinez ibili bitartean. Gainera, ez dago egun bero batean ur-jauziak topatzea baino luxu handiagorik!

Uneok lotura handia sortu zuten adarrekoan artean, eta landara itzultzean, bizitakoa guztiak bizitakoa partekatuzko aprobetxatzen genuen.

Amaitzeko, egun hauetan ikasitako eta hausnartutako guztiari esker, jende eta leku berriak ez ezik, konpromiso berriak ere eraman ditugu aldean; zapi berriak, mundu hobe baten aldeko lana sinbolizatzen dutenak.

GAZTE ALAI



Quintanabaldoko inguruan dagoen zelai baten aurrean ere, Gazte Alaik udaro egiten dugun "kanpa" aurrera eraman dugu. Aspergarria dirudi urtero asko hobetzen ez den kanpa batera joateak, baina zeinen erratuta gauden hori pentsatzean.

Nola aspertuko gara kanpako errutinarekin, kokatuta gauden zelaiaren alboan beti erreka badago? Horrek mila aukera zabaltzen dizkigu imaginazioz betetako ume eta gazteoi. Errekara saltoak, harriekin txanpa egitea, presatxoak eraikitzea, errekan gora esploratzea, karramarroak harapatzea... Nola aspertu errutina honetan, lehen egunean eskuz eraikitzen badute umek Volley, futbol zelaia, ping pong mahaiak... munduko tx-

pelketaren pare dauden partidak jokatuko diren tokia, alegia.

Begiraleok arratsaldero gure taldeekin bileratxoak egingo ditugu. Horien dinamizazioa aurretiaz prestatzen dugu, umek ondo pasa dezaten; mila motako probak, eskulanak edota jokuak, esaterako. Baina ekintzen errutinez gain, badaude hain agerikoak ez direnak ere; kanpa hainbeste maitatzea egiten digutenak, hain zuzen. Adin ezberdinetako gazte eta ume elkarrekin bizi garenez, harreman mota asko sortzen dira urtero, adina, izaera edota egoeraren araberakoak; beti, beti, aspergarria den guztia baztertzen dutenak eta, gure izenak dioenez, GAZTEok ALAItzen gaituztenak.



VICTOR PATRICIO LANDALUZE (1830-1889), KUBAKO LEHEN MARGOLARI KOSTUNBRISTA

Gure artean zeharo ezezaguna bada ere, bilbotar bat da Kubako margolari kostunbristen aitzindaria. Victor Patricio Landaluze ia berrogei urtez bizi izan zen Karibeko uharte nagusian eta hango biztanleak inor baino hobeto islatu zituen. Bazeukan, gainera, Deusturekiko lotura.

Testua: Hektor Ortega



Conversación en la calle margolana (1889).

Victor Patricio Landaluze Bilboko merkataria familia batean jaio zen 1830eko martxoaren 6an. Aita Basiliok eta aitite Patriciok konpainia bat zeukaten, itsasoz haraindiko salerosketetan aritzeko. Ama, berriz, Victoria Uriarte bermeotarra, lur-jabe familia baten alaba zen. Hamar mila dukateko dotea eraman zuen ezkontzara, egin kontu.

Gazterik zela hil zitzaion aita Victor Patriciori. Arrazoia ez dakigula, handik gutxira, 1850ean alegia, Kuban zegoen, Cárdenas hirian, antza denez Lersundi jeneralaren laguntzaile. Ama, berriz, Bizkaian gelditu zen eta Durangon hil zen 1881ean. Landaluze Cárdenasen zen Narciso Lópezek hiria eraso zue-nean. Lópezek Kuba Estatu Batuetara batzeko asmoa zerabilen. Gatazkaren gordinak zausk eginda utzi bide zuen bilbotar gaztea. Orduan lotu zitzaion independentziaren aurkako borrokari eta hala segitu zuen hil zen arte.

Handik gutxira Habanan zen, karikaturista, margolari, marrazkilari eta idazle zereginetan buru belarri murgilduta. 1852an *Los cubanos pintados por sí mismos* albumean parte hartu zuen. Harrez gero sarritan jo zuen klase herrikoiak paperean islatzera. Cecilia Arrozarenak (edo Joseba Sarrionandiak) honela definitu zuen: "Victor Patricio Landaluzeren kostunbrismoa ez zen batere kritikoa, pintoreskoa baizik, arrotzaren begirada eta, batzuetan, satirara hurreratzen zen, baina bere margoak, eta are bere karikaturak ere, azkenean ispiluak izan ziren, eta ispilu haietan kubatarrek, haien heterogenotasunean, beren burua ezagutu zuten herri gisa, espainolaz desberdin".



Album Vascongado (1869)

1869an Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak tertzio euskaldunak bidali zituzten Kubara, independentisten matxinadaren aurka borrokatuz. Habanako ongi etorria emateko lan-taldean aurkitu dugu Landaluze. Bereak dira argitaratu zuten liburuko (*Album Vascongado*) irudiak, baita olerki bat ere, gaztelaniaz, *Garaitu edo ill!* izenburupean. Eta, hara non, euskaldun soldaduei “hijos de Altabiskar” esan zien, Orreagako batailaren kantu faltuak eskuratu zuten zabalkunde handiaren erakusgarri.

Bitxia da, gero, independentziaren aurka hain sutsu jardun zuenaren lana Kuba independentearen nortasunaren sortzailetzat daukatela gaur egun

uhartean. 1881ean *Tipos y Costumbres de la Isla de Cuba* albuma plazaratu zuen. Hogei marrazki haiek dira, adituena ustetan, “Kubako XIX. mendeko herritarren bizimodua ondoen eta samurren islatzen duen irudi sorta”.

Tuberkulosiak jota hil zen, 1889an, Guanabacoan, Kuba beti arrotz ikusi arren, inork baino hobeto irudikatu zuen artista.

Deustuko lotura

1820-1830 urteetan Patricio Landaluzek, Victor Patricioren *aititeak* alegia, lursailak eta baserriak erosi zituen Deustun, segururik merkataritzako etekinak inbertitzeko. Besteak beste, hurrean zeuden Basabeko Maltercio eta Puerta Otomana etxaldeak eskuratu zituen, baita Teillaetxe auzoko Aresti ere. Hirurak maizterren esku zeuden.



Hiru baserri bazen zer edo zer sasoi hartan. 1837an Patriciok seme Basillori utzi zizkion, baita zehaztu ere etxalde bakoitzeko faltak zeintzuk ziren. Baina karlistadak ez bide zion mesederik egin, ez Landaluzetarren merkataritza jardunari, ezta Deustuko haien baserri sortari ere. 1842an Basilio Landaluzek bere negozioak kinka larrian zeudela aitortu zuen. Handik urte gutxitara hil zen. Deustuko etxaldeak Victoria Uriarteren ardurapean gelditu ziren. Horrela zeuden Victor Patricio Kubara joan zenean. Margolaria ez zen inoiz itzuli Deustuko ondasunen ardura hartzeko. Hurrengo urteetan, bere izeko Juana Landaluzek eskuratu zituen.



Kalderapeko

euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



DUINTASUNA HELBURU



Testua: June Mendizabal, Athleticeko futbolari ohia eta prestatzaile fisikoa

Espainiako selekzioak mundiala irabazi du aurten. Jokalarien artean, bi euskaldun. Espainako selekzioak munduko txapelketa irabazi du aurten top mundialean dauden 15 jokalariren faltan, greba garrantzitsu bat dela eta. Hamabost horien artean, bost euskaldun.

Nabaria da azkenengo urteetan emakumeen futbolak gorakada izugarria izan duela mundu mailan. Espainian eta Euskal Herrian, hazkunde izugarria egon da. Neska gazteen parte hartzeak gora eta gora dijoa azken boladan lortzen ari diren gauza guztiengatik. Athleticen azken liga, Real Txapel-dunen Ligan sartu zenean, Alaves eta Eibarreko taldeak lehenengo mailara igo zirenean eta oraingoan Espainiako selekzioa munduko txapelketan garaile. Asko eta asko dira emaitza horien atzetik dauden faktoreak. Egunero lanean gaudenon artean argi ikusi da eboluzio hori ez dela batere erreza izan. Bidean pairatu ditugun gauza guztien aurretik etorkizunerako itxaropena nagusitu egin da eta ondorioz, borroka luze honen aurrean bizirik jarraitzen dugu. Nahiz eta azkenengo hilabeteetan famatuak izan diren egoera prehistorikoak gurekin jarraitzen duten, mundu berri bat zabaltzen ari da geroan izango diren jokalariek gazteentzako. Argi izan behar dugu orain duguna atzo borrokatu zutenei esker dela, eta orain eredu diren horiek ondoren etorriko diren neskegatik tinko dabilzala.

Azkenengo urteetan izan dugun hazkundearen alde garrantzitsu bat komunikabideek pixkanaka pixkanaka egiten hari diren lanaren eskutik dator. Ikusgarritasunak bizirik mantentzen gaitu begiak

zabaltu nahi ez duenaren aurrean. Baina, zergatik piztu egin da orain komunikabide horiek duten interesa? Nondik atera dute irakurleak horrekin erakartzeko grina?

Gizonen futbolak, ez dauka antza handirik duela 100 urte praktikatzen zuten kirolarekin. Oraingoa, espektakulo hutsa da. Hobea? Ezberdina. Zergatik gertatzen da hori?

Lana, esfortsua, interesa, lan tresnak, formakuntza, denbora, dirua... Hori da behar genuena, eta aldaketa txikiekin aurrera egin dezakegula argi utzi dugu. Loratze prozesu bat bizitzen ari gara. Horrelako gauzak, ez dira egun batetik bestera gertatzen...

Baliabide hobeak direla eta, lan orduak nagustitu egin dira. Lehen entrenatzen zenaren bikoitza entrenatzea lortu da lan baldintzak hobetzen joan diren heinean. Jokalariak, azkarragoak, indartsuagoak, teknikoki trebeagoak eta taktikoki adimentsuagoak bihurtu dira. Jokoa, askoz bizkorrago doa eta ondorioz erakusgarria bihurtu da gehienbat, kirol hau praktikatzen duten neska gazteen artean.

Argi dago gauza asko aldatzear daudela oraindik. Bide luze honetan, tristuraz esanda bada ere, bortizkeriak bizi beharko ditugu mundu osoaren begietan duintasuneko kirolariak izan arte. Baina aurretik sekulako etorkizuna espero da. Ikastetxeetako patioetan baloiarekin jolasean dauden neska horiek, bide berri bat aurkituko dute haien aurrean. Orain, erreferenteak dituzte, eta ez, ez dira gizonak.



BESTE BEHIN, KIROLA ETA ANTIARRAZAKERIA UZTARTZEN



Testua: Axular Arostegui

Joan den irailaren 2an Bilboko VII. Mundialito Antiarrazista ospatu zen Deustuko Erriberan. Orotara, 300-350 pertsona inguru bildu ziren arrazismoaren aurkako ekimen honetan parte hartzeko, eta kirola, musika zein aparteko jai giroaz gozatzeko. Alde horretatik, ekitaldiaren inguruan gehiago jakiteko, Flora Pozzobonengana jo genuen, antolakuntza taldeko kidea, hain zuzen ere.

Aipatu zigunez, “lehendabiziko edizioak Karmelan egin genituen. Apurka-apurka, espazio hura txiki geratu zitzaigun eta Erriberako bizilagunekin hitz egin ostean, hona mugitzea erabaki genuen. Aurtengoa, beraz, hirugarren aldia da ekimena hemen egiten duguna”.

Egun hartan bititakoa, ordea, ez zen egun batetik bestera antolatu. Izan ere, Bilboko Aste Nagusia bukatu berritan ospatzen dela kontuan harturik, aste horretan kartelak eta pegatinak banatu zituzten jai-gunean zehar. Gainera, beti urteko bolada berean antolatu ohi dutenez, dagoeneko badu zita gordeta urtero datorren jendeak ere. “Mundialitoak jada urtero datorren jendea du: migratzaileak, eragile antiarrazista edota antisfzistetako kideak, esaterako”.

Elkarbizitza helburu

“Mundialitoaren helburua elkar ezagutzea da. Alegia, elkarbizitzarako espazio bat sortu nahi dugu, kirolaz ez ezik, musikaz ere gozatzeko eremu a proposa dena”, hala deskribatu du Po-

zobonek antolakuntza taldearen xedea. Aurreko edizioetan bezala, hainbat ekintza egin ziren egun osoan zehar. Adibidez, goizeko gosaritik hasita, futboleko eta saskibaloiko txapelketez gain, 300 pertsona inguru bildu zituen bazkaria antolatu zuten.

Eguraldiaren mehatxua

Bezperako egunetan eguraldi bereziki txarra egin zuen Bilboaldean. Hala, aurreikuspen meteorologikoak ekimena beste egun batean ospatzeko zalantza sortu zuen antolakuntza taldean. Edozein kasutan, euriak eguna zapuzteko arriskua egon arren, azkenean programazioarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. Azaltzen duenez, “jende asko etorri zen azkenean, uste genuena baino gehiago. Horrek pertsonalki asebetetzen gaitu, noski, eta ederra da sentsazioa, egiten dugun horretan are gehiago sinistea ahalbidetzen digulako”.

Harrera epela

Esan bezala, aurtengoa ez da ekimena Erriberan antolatzen den lehen aldia, hirugarrena baizik. Pozzobonek berebiziko garrantzia eman nahi izan dio auzoko bizilagunen aldetik jasotako babesari: “Izugarria izan da. Lehen ediziotik euren babesa eskaini digute. Gogoan dut lehendabiziko urte horretan andre batek tarta batzuk eman zizkigula bazkariko proste modura. Horretaz gain, beste zenbait gauzen artean, Bizinahiko ateak ireki dizkigute eta Jai Batzordeak asko lagundu digu”.


berbetan

URDAX ANTEPARA ARREGIrekin

Zierbana Arraun Taldeko arraunlaria

“Zure burua mugara eramatera, hobeto

*Zierbana Arraun Taldeko
arraunlaria da Urdax
Antepara. Deustun hazi eta
hezitakoa, Tomateraren koloreak
defendatzen hasi zen arraunean.
Joan den urtean galipoekin
Eusko Label mailara salto egin
eta gero, aurten, Ligan eta
Kontxako estropadan lortutako
bigarren postuarekin goia jo du
bere kirol ibilbidean.*



ezagutzera, bultzatzen zaitu arraunak”

2022ko azaroan hasi zenituzten entrenamenduak; txapelketak, aldiz, joan den irailaren 17an bukatu. 10 hilabete gogor entrenatzen eta lehiatzen pasa ostean, heldu da deskantsatzeko garaia. Tarterik izan duzu jada oporrez gozatzeko?

Ez, momentuz ez. Azken batean, denboraldia bukatu eta jarraian lanean hasi naizenez, deskonektatzeko tarte gutxi izan dut. Beraz, argi eta garbi sentitzen dut indarrak berreskuratzeko eta arraunaz apur bat deskonektatzeko gogoia.

Emaitei dagokienez, bigarren postua lortu duzue Ligan eta Kontxako Banderan. Lehenengoaren kasuan, gainera, lau bandera irabazi dituzue. Zer nolako gorputzaldia utzi dizu denboraldiak?

Esango nuke inork gutxik jartzen gintuela bigarren postu honetan; are gutxiago, Kontxan lehiatu garen moduan lehiatzen. Horregatik, Klubarentzako emaitza historikoak izan direla uste dut, bandera kopuruari zein ligako sailkapenari dagokienez. Hala ere, argi dago balorazioa ezin hobea izan dela ezin duzula esan, irabazi ez duzunean; baina, nire iritziz, oso maila ona eman dugu eta emaitzak bikainak izan dira.

Iazko taldearekin alderatuta, aldaketa ugari izan dituzue: entrenatzaile berria, fitxaketak eta zenbait arraunlari garrantzitsuren baja. Gauzak horrela, ekainean estropadak hasi ze-

nituztenean, lortu duzuen eskura zenezaketela pentsatzen zenuen?

Hainbeste aldaketarekin ezetz esango nizuke. Baina, egia esan, hasieratik ikusi genuen entrenatzailearen entrenatzeko erak zein traineruan konfiantza irabazteko moduak uste baino emaitza hobek izatera eramango gintuela; hala, taldeak konfiantza nahiko azkar lortu zuen. Alegia, nolabait esateko, bidean taldean izandako aldaketekin zalantza ugari izan arren, lortutako emaitzek taldeak irabazitako konfiantza hori areagotu zuten.

Zazpi urte zeramatzen Hondarribiak ligako bigarren postua lortzen. Horretaz gain, azkeneko 10 urteetan lau aldiz irabazi du Kontxako estropada. Zuek, ordea, Ama Guadalupekoaren aurretik geratzea lortu duzue bi txapelketa nagusietan. Zer suposatu du zuentzako?

Erronka handia zen, argi dago. Ez genuen uste hain lehiakorrak izango ginenik hasieran. Edozelan ere, nahiz eta estropadak aurrera joan ahala Hondarribia oso erregular ibili, nire ustez, denboraldiko azken zati honetara gu hobeto, edo haiek ez hain eroso, heldu gara.

Nolakoa da arraun denboraldi baten prestaketa?

Buf, ordu asko daude atzean. Hasieran ilusioz ekiten diozu, baina gorputza txikitu behar duzu. Ez zaude ohituta entrenamen-

“Klubarentzako emaitza historikoak izan direla uste dut, bandera kopuruari zein ligako sailkapenari dagokienez”

D

berbetan

URDAX ANTEPARA ARREGIrekin

▷ ▷ SAKONEAN

“Ez naiz hartutako erabakiaz damutzen”

Parrandak, bidaiak... ugari izan dira arraunean aritzeko sakrifikatu behar izan dituzun gauzak. Badago ezer damurik sortzen dizunik?

Sortzen duzun disziplina horrek gauza asko kentzen dizkizu, argi dago. Gehien mintzen nauena Orbaizetako lagunekin edo Deustuko kuadrillarekin ez egotea da. Zentzu horretan, badaude oharkabeen pasatzen diren uneak. Esate baterako, ostiral gau batez entrenamendutik itzultzen zara eta lagunekin elkartzeko joan nahia albo batera utzi behar duzu, larunbat goizean goiz esnatu behar duzulako entrenatzera joateko. Edonola ere, ez naiz hartutako erabakiaz damutzen. Normalean egiten ditugun gauza guztiak bere alde onak eta txarrak dituzte. Denborarekin ikusiko da zerk ematen digun damutzeko go-go. Hortaz, damua ez den arren, bai pena ematen didala nire ingurukoek bizitako horretan parterik ez hartzea.

Hurrengo denboraldiari begira, nola aurreikusten duzu?

Arraunlari bezala, esango nuke lortutakoari jarraipen bat emateak osatu egiten zaituela. Aurten proiektu baten parte sentitu naiz; non taldearen eta entrenatzailearen konfiantza izan dudana. Argi dago atea irekiak beti irekita daudela iritsi daitezkeen aukera berrietara. Eta hurrengo urteari begira, nik uste Zierbanak aurten lortutakoari jarraipena eman ahal izateak norberari eta taldeari on egingo diola.



du kargara, indarra lantzeraz; gaitasun guztiak galdu dituzula konturatzen zara. Behin ohitzen zarenean, entrenatzaileak edo prestatzaileak are eta karga handiagoa sartzen du. Kargek jarraitzen dute, ez dago atsedunik. Horregatik, garrantzitsua da karga horiek kontrolatzea, larregi ez estutzeko. Baina, azarotik maiatzera bitarte lehiaketa oso gutxi izaten dira eta oso zaila da kontrolatzea. Ondoren, konturatzen zarenerako ekaina iritsi da, lehiaketen hasierarekin batera.

Aurten ika-mika nabarmena sortu da Bizkaiko zenbait taldek Donostiko estropadan jaso duten tratua ren harira. Hausnarketarik eragin du taldean?

Taldean ez dut uste hausnarketa handirik egin denik. Hala ere, beti dago antolaketaren mamua. Gure kasuan,



ez dut uste bereziki kaltetuta irten garenik ika-mika horri dagokionez. Dena den, nire iritziz, antolakuntzak hausnarketa txiki bat egin beharko luke, ez bakarrik Bizkaialdeko ontziengatik, baizik eta baita funtzionatzeko eragatik ere. Azken batean, ez da normala Kontxa bezalako jardunaldi batzuetan arraun talde guztiek baldintza berdinetan ez jokatzea; bestalde, ilusioarekin jokatzek ere pena ematen du.

Behin denboraldia bukatuta, sare sozialetan eztabaida sortu da arraun taldeek egin dezaketen fitxaketa kopuruaren inguruan. Zure ustez, aldaketaren bat beharrezkoa da?

Aipatzen diren neurri horiek adostasunean oinarritutako erabakiak izan behar dira. Dena den, ez dut uste harrobitik datorren arazo bat denik. Nire iritziz, galdera beste bat izan beharko litzateke: zergatik gazte jendeak ez du disziplina hori erakusten, senior taldeetan mantentzeko? Hau da, txapelketa eredua birpentsatu beharra dago, arraunlari gazte gehiagok arraunean segi dezaten.

Zu zeu maila apalagoan dagoen arraun talde baten hasi zinen arraunean. Zaila da lehen mailara salto egitea?

Guztiok amesten dugu hasten garen taldearekin maila gorenera iristea. Gure kasuan, hurbil egon ginen, baina azkeneko pauso bat falta izan genuen helburu hori lortzeko. Gerora, sortzen zaizkizun aukerak aprobe txatu behar dira, nire ustez. Zierbanak haiekin arraun egiteko eskaintza egin zidanean, gorputzak pauso hori ematea eskatzen zidan, eta oso gustora nago hartutako erabakiarekin. Nolanahi ere, espero dut Deustok ere maila sendoa erakustea eta etorkizunean helburuak lortzea.

Nolako izan da trantsizio hori?

Ez da batere erraza izan, bai alor pertsonaleko zenbait aferarengatik, jende berria eza-gutzeagatik, zure buruarekiko konfiantza lortu beharagatik... guzti hori kudeatzea ez da lan erraza. Noski, oztopoak ere badaude, baina horiek gaindituta egiten dugu aurrera.

14 urte daramatzazu arraunean. Zer eman dizu kirol honek?

Jende asko ezagutzeaz aparte, harreman sendo asko ematen ditu; izan ere, hamaika momentu txar zein on partekatzen dituzulako beraiekin. Horretaz gain, egunerokotasunera eramaten zaituen disziplina eta errutina horrek pertsona pixka bat serio edo formalagoa osatzen du, hala nola, konpromiso eta sakrifizio aldetik, edota norberarekiko exijentzia aldetik ere bai. Azken batean, zure burua mugara eramatera, hobeto eza-gutzera, bultzatzen zaitu arraunak. Era horretan, kirolari zein pertsona moduan haztea ahalbidetzen dizu.

Arraunak suposatzen duen exijentzia pertsonal eta fisikoa kontuan hartuta, etorkizun hurbilean uzteko asmorik duzu?

Uste dut irailero egiten dugun galdera dela hori. Gero, ez dakit zergatik, beti mantentzen dugu arraun egiteko gogo hori. Nire kasuan, bai familiak, bai lagunek, hein handi batean, asko laguntzen didate urtero arraunean segitzeko. Hala eta guztiz ere, deskantsu txiki bat hartzeko beti eman ohi du aurrerapauso bat emateko indarra.

“Txapelketa eredua birpentsatu beharra dago, arraunlari gazte gehiagok arraunean segi dezaten”



OROIMENA

Iharra Pala Txapelketa izan da irailean

Urteroko ohitura bilakatzeko asmoa duen pala txapelketak IV. Edizioa izan du 2023an. Irailaren hasieratik pala-bikoteak beraien artean kanporaketak jolasten egon dira Iharra frontoian, eta pasaden irailaren 28an Deustuko IHARRA pala txapelketako finala jokatu zuten. Txapelketa honen bidez Deustuko gazte militante antifrankista eta euskaltzalea, Jonan Aranguren Mujika, oroitu nahi dute antolatzaileek. Jonan 1972ko irailaren 20an erail zuen guardia zibilak, muga igarotzen ari zenean. Euskal Herriaren aldeko eta frankismoaren aurkako borrokan murgildutako gaztea zen Jonan.

Bere memoria bizirik mantentzeko duela urte asko herritar talde batek Deustuko frontoia Iharra Frontoia izena jarri zion.



FEMINISMOA

Deustuko neska* gazteak ere Batera-jotzean izango dira

Joan den irailaren 14an, Parek, Deustuko Talde Feministak, urriaren 13tik 15era bitarte Usurbilen ospatuko den Euskal Herriko Neska* Gazteen Batera-jotzea aurkeztu zuen Deustun. Neska* gazteen problematika propioak identifikatu, hauen inguruan hausnartu eta denen bizitzak erdigunean jarriko dituen zaintza sistema publiko duin bat lortzera bidean, proposamen zehatzak biltzeko helburua du Batera-jotzeak. Adierazi zuten, zaintza gutxi batzuen negozio izan ordez, guztion eskubide unibertsal izatea aldarrikatuko dute datozen hilabeteotan; alde horretatik, ezinbestekotzat jotzen dute gazteen ekarpena. Era berean, azaroaren 30ean deitutako Greba Feminista Orokorrerako indarrak biltzeko eta aliantzak sendotzeko baliatuko dute ekimena.



AUZOA

Zuhaitzen mozketaren aurkako mobilizazioak

Lehendakari Agirre Etorbidea berriztatzeko planaren bigarren fasean murgildurik, dagoeneko 60 zuhaitz bota dira eta beste hainbeste mozteko asmoa du Udalak. Horren aurrean, Stop Tala Deusto auzo-mugimenduak ez du amore eman eta iraila osoan zehar mobilizazioekin jarraitu du. Izan ere, etorbidean oraindik zutik jarraitzen duten zuhaitzak moztearen zergatia segurtasun kezka direla azaldu du Udalak, egoera txarrean eta sustrai ahulekin daudela argudiatuta.

Hala ere, auzo-mugimenduak Udalaren kontraesanak salatu izan ditu hasierahasieratik. Horrenbestez, Stop Tala Deustok estatu mailan hiriko zuhaitzen babesa bermatzeko lege berri bat ezartzea eskatu du. Bitartean, auzotarrek eta auzo-mugimenduak zuhaitzen mozketaren aurkako mobilizazioekin jarraituko dute.





KIROLA

Dena prest Deustuko KM bertikala hasteko

Urriaren 8an izango dugu 'Deustuko Kilometro Bertikala'-ren lehenengo edizioa. Probaren helburua, Deustuko jendea kirolaren inguruan biltzea izango da. Ekimen berritzaile honek kilometro gogorra izango du Ugaskotik Berrizera bidean, 145 metroko desnibel metatuarekin. Lasterketak hiru modalitate izango ditu: Gaztetxoak (12 urtetik beherakoak), Taldeka eta Norbanakoa. Noski, modalitate bakoitzak bere sari bereziak izango ditu, Deustuko parte-hartzaile azkarrenaren sariarekin batera. Prezioei dagokienez, partaide bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du. Gaztetxoan modalitateko partaidetza, aldiz, 7 eurokoa izango da. Horrekin batera, federatuak diren kirolariek bi euro merkeago izango dute inskripzioa. Kirol frogaz gain, ekimenak jai giroan egoteko gunea sortuko du, Deustuko zein herritik kanpokoentzako plan erakargarria izango dena.





Urtea: 1972

Salbeko zubia

Txema Luzuriaga

Iraileko zenbaki honetan Deustuko Elizatearekin lotutako irudien kapitulu berria hasiko dut. Lehenengoa Salbe Zubiakoa da, gaur duen izena, izan ere, 2016an aldatu zen arte Espainiako Printze-printzesen zubia deitzen baitzen. Izena jarri zioten bertatik Bilboko Basilika ikusten zela eta, ailegatzean portura zetozen marinelek salbea kantatzen zutelako. 1972ko urtarrilaren 9an inauguratu zen eta Juan Batanero ingeniariak egin zuen. Estatu mailan lehena izan zen tirante-sistema erabiltzen eta metalezko taula duen bakanetakoa da. Horrez gain, 23,5 metroko altuera “librea” du, itsasontziak pasa daitezten.


Salbe zubia Campo Volantín pasealekuaren bukaeran dago, Allende delako etxeak dauden tokian, Deustu eta Begoñaren arteko muga zena, ondoren, Bilborena. Bi etxe horien artean, hain zuzen ere, gorantz ja-rraitzen zuen. Mendiaren erdi aldera ur-biltegi txiki bat dago, Deustuko isurialdean, Pikotamendi mendiaren azpian (Zarandona), Deustun, eta Begoñaren arteko muga ere bazena. Bertan, hura gogorarazten duen mugarri bat dago. Arkotxagane izeneko baserri bat ere badago, Haize Errotaren bidean dagoena.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
billbokoaldizkariak@gmail.com

△ ∇ △ ∇ △
TATTOO STUDIO


Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303 

Optica
Avenda
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com 


Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4


Yoki Berrri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintoreria
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu 

artez euskara zerbitzua 
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play  App Store 
ERRODOKO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA BFA BFA

 Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltea
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

 **RONDOKO**
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elekttrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


Uda amaierarekin batera, urte osoko errutina bueltatu da. Zer da oporretatik bueltan errutinara itzultzeko gehien kostatzen zaizuna?



**Ander
San Inazio**

Nire kasuan errutina atsegin dut. Gogoko ez dudana, ordea, hemendik aurrera egunak laburragoak izatea da.



**Andrea
Deustu**

Arratsaldean lan egiten dudanez, jendearen aisialdia nire lana da. Inbidia puntu bat ematen didate.



**Xabi
Eibar**

Bereziki gogaikagarria egiten zait astean zeharreko planen aukera murriztea. Pena, neurri batean, asteburura itxaron beharra askatasun hori berreskuratzeke.



**Ainhoa
San Inazio**

Oporretatik itzultzean gehien kostatzen zaidana goiz altzatzea da. Oso lotiarrak naiz eta, tamalez, lanera joateko goiz esnatu behar dut.



**Jon Andoni
Deustu**

Iratzargailua berriro orduan jartzea, goizean jendea beteta doan metroan joatea, eta are gutxiago oraindik, hurrengo egunean lanean jateko taperra prestatzea.



**Jone
San Inazio**

Plazerez egiten ditudan gauzak bigarren mailara igarotzen direla eta lanak hartzen duela errutina horretan nagusitasuna.



harkua bete herria

>> HEZKUNTZA

ESKOLA, EUSKARAREN JAGOLE

Testua: Itxaso Sainz



Ikasturtea hasi berri dugu, baina badira hamarkadak euskararen biziberritze prozesua hasi zenetik. Hori bai, benetan lortzen gabiltza espero genituen emaitzak? Euskaraz ikaste hutsak bermatzen al du erabilera?

Jakin badakigu Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial ditugula: euskara eta gaztelania. Hala ere, biak ez daude maila berean, azken hori guztiz gailentzen delako. Hori dela eta, azken hamarkadetan ekimen ugari egin dira, euskarak gure gizartean tokia har dezan; besteak beste, erabakigarria izan zen 60-70 urte bitarteko Ikastolen Mugimendua. Legegintzak ere bultzada handia eman zion hizkuntzari, hezkuntza elebiduna abian jartzeko atea ireki baitzizkion. Ezarritako legearen 15. artikulua arabera: Ikasle guztiek euskaraz nahiz gaztelera ikasteko aukera izango dute hezkuntzako maila guztietan zehar.

Horren ildotik, gaur egungo euskal hezkuntzaren ikaste eredu nagusienak eratu ziren: A, B eta D. Bakoitzean euskara ez denez neurri berean irakasten, emaitzak ere bestelakoak izaten dira. Haatik, harrigarria dirudi Hezkuntza Curriculumak eredu elebidun horien bidez helburu berberak lortu nahi izatea. Jakina denez, zenbat eta gehiago murgildu hizkuntza batean, orduan eta kompetentzia handiagoa garatuko da hizkuntza horretan.

Hori horrela bada ere, ikerketek agertu dute euskarazko ikaste eredu guztiak garrantzitsuak izan direla euskararen ezagutza nabarmen handitzeko; zoritxarrez, ikaste hutsak ez du erabilera bermatu. Hau da, euskararen hitzun kopurua handitzeak ez du zuzenean ekarriko erabilera areagotzea. Hortaz, zer egin dezakegu euskara biziberritzearen erronkari ahalik eta eraginkorren eusteko?

Eskola gai honen erantzule handienetako bat da; edozelan ere, ez da batere lan erraza ondo kudeatzea hizkuntza gutxitu bat denean hezkuntza sistemaren ardatza. Areago, gure eskolak euskara biziberritzea du helburu nagusizat; eta horretarako, hitzun aktiboak lortzea nahitaezkoa da. Dena den, ikasle eleanitzak eskuratzea ere badu jomuga. Gainera, ingelesa eskolako programazioan uztartu beharrak eragozpen gehiago sortzen dizkigu, bai eta geletako hizkuntza aniztasuna kudeatu beharrak ere.

Oztopoak oztopo, eskolak euskara biziberritu nahi badu, ikasleek hizkuntzarenikiko duten jarraera aldatzeko premia dauka. Era berean, aldaketa hori eman ahal izateko, euskararen irakaskuntza indartzea ezinbestekoa da, baita ikasleen egungo beharrezanetara egokitzea ere. Horretarako, oso lagungarria izango da ikasleak benetako praktika sozialak egitera bultzatuko dituen metodologia sendotzea. Horren ondorioz, ikasleek hizkuntza gustura ikasi ez ezik, erabilgarri ere ikusiko dute.

Dakigunez, hainbat eskolatan irakasteko ikuspegi hori darabilte; dena den, sarritan irakasleok zailtasunak izaten ditugu modu egokian baliatzeko. Esaterako, zentroan bestelako metodologiak ezarrita egoteak edota ikasleen testuinguruak eta mailak berak traba izan daitezke. Beraz, bide onean gauden arren, hobetzekoak ditugu.



ASTE NAGUSIKO KONPARTSAKIDEEN BIZIPENAK

TINTIGORRI · Iratxe

Urte arraroa izan dela esan behar dut. Bueno, arraroa baino, desberdina izan dela esango nuke; hain zuzen ere, ez baita erreza izan niretzako lekukoa pasatzea. Joan den urtean Txupinera izatea oso berezia izan zen niretzako; hala ere, esperientzia hartako saririk handiena nire Pregollaria izan zen: Itziar Lazkano. Hala, bizi osoko adiskidetasun bat ez ezik, aste ahaztezin baten oroitzapena daukat. HORREGATIK, ESKERRIK ASKO TINTI, ESKERRIK ASKO DEUSTU! Izan ere, zuei gabe ez zen posible izango, eta gaur egun esan dezaket Bilboko historiaren zati baten parte naizela. “Post pandemiako txupinera” izan nintzen, eta ez dago munduan horrelakorik diruz ordaindu dezakenik. Aurtun txoznen txandetera bueltatzea tokatu zait eta jende berri asko ezagutu dut. Tintigorriko familia hazten ikusteak harro sentiarazten nau. Tintigorri

Deustun jaio zen arren, pozik esan dezaket, gaur egun Bilboko mugak gainditu ditugula eta Bizkaia osoan aurkitu gaitzakezuela. Tintigorritik besoak zabaltzen ditugu eta jendea animatzen dugu gure familia hazten laguntzera. Primeran pasatuko duzu eta jende izugarria ezagutuko duzula zihur nago.



HAU PITTU HAU · Ainhoa

Euskararen normalizazioa eta euskaraz bizitzea aldarrikatzen dugun hamaika lagunok 10 egun montajearen ondoren, abuztuaren 19an heldu zitzaigun Marijaiari ongi etorria emateko eguna. Lehenengo egunak pasatuta, oraindik goia jo ez eta oraindik ere indarrez geunden gure egunerako, Aste Nagusiko Euskaraz bizi egunerako. Aurtengo saritua Agerraldia izan zen eta goizetik hasita hamaika ekintza genituen antolatuta: goizean marianito musikatua, umeentzako pailazoa, bazkaria, elektrotxaranga eta gauean kontzertuak. Ostirala iritsi zenerako, azken indarrak bildu genituen ur jolasetan parte hartzeko eta larunbatean azken parranda botatzeko. Lan eta lan aritzen gara abuztu osoan zehar, baina zoragarria da zer



egiteko kapazak garen ikustea eta dena, euskaratik, euskarara eta euskararen alde. Euskaldun eta euskaltzale ikusten dugu gure burua, eta horrela eragiten jarraituko dugu jai giroan ere.

13. DENBORALDIA



www.pabellon6.org



PROGRAMAZIOA

KASKAGORRI · Maialen

Itxi begiak segundo batez, eta imajinatu: 100 gaztetik gora, 22 egunez jarraian eta abuztuaren erdian proiektu baten bueltan buru-belarri elkarrekin lanean. Bilboko hainbat auzotako gazteak dira, 14-28 urte bitartekoak eta adin arrakala handia izanda ere, berdinen arteko harremanak eraikitzen dituzte. Euskaraz hitz egiten dute euren artean, askorentzako oraindik erosen duten hizkuntza ez den arren. Ez dute helduen beharrik eta, jakintzaren hari amaigabeari jarraiki, gai dira ia 20 metro altu den aldamiozko dorre bat eraikitzeko; gai dira elkarri elektrizitatea, iturgintza, soinua, argia, arkitekto-lan eta bestelakoak irakasteko. Erzetan dagoen guztiarentzako etxeak sortzeko konpromisoarekin eraikitzen dituzte laguntasunak, herri baten barruan. Doakoa izango den egitarau oparoa antolatzen dute, etorkizunean beste milaka gaztek eurekin bat egiteko asmoarekin. Eta hau guztia egin bitartean, gai dira dantzatzeko eta abesteko, gainontzeko 27 konpartsak umoretik zirikatzeke eta, batez ere, gozatzeko, biziki gozatzeko. Gozamenik gabe, ezinezkoa litzatekeelako.

Bada, ez dago aurreko guztia imajinatu beharrik. KASKAGORRI ezinezkoa posible egiten dugu bilbotar gazteok. Eta, noski, posiblea da, Kaskagorri osatzen dugun gazteok ez ginelako kasualitatez elkartu, amets beraren atzetik baizik: Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna dugu helburu eta, gazte boterea eraikiz, aisialditik, umoretik, hausnarketetatik... elkarguneak eraikitzen ditugu, pixkanaka, Euskal Herri askea errealitate eginez, gertuago izanik. 22 egunez, herri aske bat sortuz Bilboko bihotzean.



BIZIZALEAK · Gaizka

Aurreko urtean post-Covid zoramena bizi ondoren, aurtengo Aste Nagusia "ohikoagoa" izango zela zirudien. Hala ere, munduan bakarra den aste hau inoiz ez da ohikoa, beti eragiten dizu zerbait berria. Dena txikitu zuten 1983ko uholdeak gogoan, Elkarlan Uholde erraldoia ikusi dugu berriro ere Areatzan, gure hiriko memoria eta balio kolektiboak indartzeko balio izan duena. Nire aldetik, azken urteetan bezala, Bizizaleak Konpartsa Ekologistan ekarpena egiten saiatu naiz. Aurten egunean zeharreko egitarauaz gehiago gozatu nahi izan dut eta gastronomikoetan ibili naiz sukaldatzen (edo sukaldariei laguntzen) ia egun guztietan. Trikia ere hainbatetan atera dut giroa alaitu nahian. Horietako bat aurten hil zaigun Miren konpartsakide maitea oroitzeke ekitaldian.

Zoritxarrez, Aste Nagusiak aurten ere izan du bere alde iluna. Mota guztietako erasoak (matxistak, arrazistak, euskarafoboak, polizialak...) jasaten jarraitu behar izan dugu. Lan handia dugu aurretik oraindik jai eredu aske eta herrikoia eraikitzeko.



harkua bete herba

>>NUTRIZIOA

PROTEINAK: ZER DIRA? NON DAUDE? ZERTARAKO DIRA BEHARREZKOAK?

Testua: Ainhoa Maiztegi

Azken aldian supermerkatuak joan bazara, apostu egin dezaket, behin baino gehiagotan, “+ proteina” zigiluarekin egin duzula topo. Izan ere, ezaugarri hau daukaten produktuek geroz eta apal gehiago edota hozkailu zati handiagoa hartzen dute. Baina, zer gertatu da proteinaren munduarekin? Egundak batetik bestera, makronutrienteen erregin bilakatu dira proteinak, eta horien presentziak edo presentzia ezak guztion elkarriketetan sartu dira.

Ezer baino lehen: zer dira proteinak? Zer funtzio betetzen dute gure gorputzean? Non topa ditzakegu? Tira, proteinak aminoazidoz osatutako makromolekulak dira. Era horretan, proteinak perladun lepokoak izango balira, aminoazidoak horko perlak izango lirarteke. Gure gorputzak bere betebeharrak aurrera eramateko 9 perla kolore ezberdin behar ditu, aminoazido esentzial deritzegunak.

Nutrizio arloan esentzial hitza erabiltzen dugunean, gure gorputzak sortu ezin duen molekula bati edota nahikoa ez den kantidadean sortu ditzakeen molekulei buruz ari gara; bi kasu horietan, berdin-berdin, era exogeno baten bitartez sartu beharko ditugunak. Nahiz eta kasu zehatz batzuetan gehigarri edota farmakoen beharra izan (oraingoan lehen eszenarioa landuko dugu soilik, hau da, gaixotasun ezarena), normalean, elikagaien bitartez egiten dugu funtzio hori. Giza fisiologia sinplifikatuz, esan genezake, eguna bukatzerako, 9 perla kolore ezberdin horiek hartu behar izan ditugula elikagaien bitartez.

Proteina aldetik aberatsak diren elikagaiak bi multzo handitan sailkatu ditzakegu: landare jatorrizko elikagaietan (lekaleak, haziak eta fruitu lehorrak, besteak beste) eta animalia jatorrizko elikagaietan (arrautzak, arrainak, edozein motatako haragia, esne eta esnekiak, edota molusku eta krustazeoak).

Animalia jatorrizko elikagaiek perla esentzial guztiak dauzkate euren konposaketan. Landare jatorrizko elikagaiek, aldiz, lekaleen kasuan gertatzen den bezala, perla kolore bat falta dute. Baina, hori ez da larritzekoa, perla hori zerealetan eta eratorrietan aurkitzen ditugulako. Ondorioz, egunean zehar zerealen bat hartzerakoan, perla esentzial guztiak hartuko genituen. Alegia, ez ditugu perla guztiak une berdinean hartu behar. Izan ere, perla guztiak (aminoazidoak) gibelko igerileku batean metatu egiten dira eta gure gorputzak lepokoak (proteinak) behar dituen heinean, horra jo eta lanari ekiten dio lepokoak sortzeko.

Egia da proteinen funtzio ezagunena estrukturala dela. Baina, proteinek honako funtzioetan ere parte hartzen dute, besteak beste: hormonalak, inmuneak, entzimatikoa, erregulatzailea, garraio eta erreserba funtzioa eta funtzio homeostasikoa.

Beraz, proteinen eguneroko kontsumora iristea (kantitate hau pertsonaren testuingurua araberakoa izango da) garrantzitsua da, noski. Baina, burua galdu barik mesedez! Urte askotan zehar heldu gara proteinen minimo horietara “+proteina” produktuak era-




harkua bete herba

bili gabe. Izan ere, aurreko Prest! aleetan aipatu dugun moduan, interes handiagoa duten elikagaiak jatorrizko elikagaiak dira (prozesatu bakoak); hortaz, gure elikadura horiez osaturik egon beharko luke hein handi batean.

Hilabete honetan proteina eta aminoazidoen aurkezpena jorratu dugu. Hurrengan, proteina minimo horietara era praktikoa batean zelan heldu ikusiko dugu; baita "+proteina" produktuen azterketa sakonagoa eskaini ere. Prest kurtso berriari ekiteko? Hemendik, gogotsu nago nutrizio aholkuekin jarraitzeko, bai eta mito nutrizionalak hausten jarraitzeko ere! Laster arte!



Ainhoa Maiztegi

 @ainhoamaiztegi.nutricion



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



PATRI MUÑOZ

Script eta kulturzalea

EUSKARA ESTRALURTARRA

Ba al dago 80. hamarkadan euskaraz zientzia fikzioa idazten duen okzitaniar euskaldunberri bat baino estralurtarragorik. Ziurrenik ez.

2019ko martxoaren 16an, *Sareinak* taldekideak Baionako Zizpa Gaztetxean bildu ziren idazleari omenaldi bat egiteko. Omenaldi horren harira *Maiatzek* bere olerki, ipuin eta eleberrien antologia bat argitaratu zuen. Orduan ezagutu nuen nik Mayi Pelot.

Esan bezala Pelot Okzitaniar jaioa zen eta zientzia fikzioa eta oro har, fantasia euskeraz idazten aintzindaria izan zen. Neologismo asko asmatu behar izan zituen eta oso berezia suertatzen da egun etorkizun urrun eta ezezagun bat asmatzea, aldera sortutako imajinaezinezko ideia horietako asko egia nola bihurtu diren ikustea.

Telekastola pandemia bitartean eta honen ondoren ezagutu dugu. *Itzulmakina* (hizkuntzak itzultzen duen makina) testu hau bera idazteko kontsultatu dut behin baino gehiagotan. *Zentro medikopolitikoak* iraultzaileak bezatzeko ospitale psikiatrikoak dira, eta zer esanik ez *Eskutela* (eskumuturreko telefonoa) edota *Ikusfonia* (telefono pantailaduna) asmakizunek gure egunerokotasunean duten presentzia.

Berezia izan da Pelot irakurtzea, oso oso berezia. Zientzia fikzioak sortu ohi dituen mundu imaginario horiek gure mundu txiki honekin txertatuta ikustea; Pelotek 5000. urtean kokatzen zuen etorkizun horren hainbat aspektu gauzatuta ikustea eta honek mahaigaineratzen dituen galdera eta hausnarpenetaz jabetzeko aukera izatea.

Doinua: Etaren su etenetik



**SALVADOR ANAKABE
SOLABARRIETA**

Elorri bertso-eskolako kidea

Udan denok izan dugu
Deustu barnean, gogotan
Ikusi ez dugunekin
Akorda gara askotan
Gaur hona ez naiz etorri
Hau kantatzeko asmotan
Baina sentimendu hori
Hor neukan gordeta, lotan
Bertsoak entzun nahi ditut
Bertsokideen ahotan
Elorri hartu nazala
Goxoki bere besotan
Udazkena heldu da ta
Hasi gaitezen bertsoan

Udako kontu ugari
Jende askoren ahoan
Ingurumen aldaketa
Ez dakigu nora doan
Ziur hau ez da izango
Debalde edota doan
Informazio zikinez
Ez dakigu nora joan
Soilik gauza bat argi da
Puntu bat unibertsoan
Lurra deitzen dugun ama
Izan dezagun gogoan
Iparrean udazkena
Udabarria hegoan



BERBALAGUN

Praktikatu Euskaraz Gurekin

Erronza da

- ✓ ZURE NEURRIRA
- ✓ HURBIL
- ✓ LAGUNARTEAN
- ✓ DOHAINIK
- ✓ ABANTAILAK

Berba lagun 607 530 132

praktikatu.es/blog/bilbo
berbalaguna@aek.eus



@goradeustu

DEUSTU ~ BERRIZ

KM bertikala

2023 · 10 · 08

1km +150m

3 modalitate
 gaztetxoak | taldeak | norbanakoak
 3 modalitate
 gaztetxoak | grupos | individual



**Euskara ikastea orain
inoiz baino errazagoa da**
17 euskaltegi, eskaintza zabala
eta dirulaguntzak



Euskarari baietz

Matrikulazio epea zabalik euskaltegetan!



Bilbao